

EUSKOTRENEK EGUNEKO ETA GAUEKO ZERBITZUA INDARTUKO DU OTSAILAREN 23AN DURANGOKO '40 MINUTU ROCK' JAIALDIA DELA ETA

Larunbatean, otsailaren 23an, Euskotrenek eguneko eta gaueko trenen zerbitzua indartuko du Durango - Matiko - Durango tartean '40 Minutu Rock' Jaialdia dela eta.

Otsailaren 23ko goizean larunbatetako ohiko zerbitzua osatuko duten hiru zerbitzu berezi eskainiko dira. Tren berezi hauek Matikotik Durangora honako orduetan irtengo dira: 10:22, 11:22 eta 12:22.

Era berean, otsailaren 23tik 24rako gauean, gaueko ohiko zerbitzua (ordu birik behin) tren bereziekin indartuko da. Durangotik trenak Matikora 30 minuturik behin irtengo dira gauaren zati handi batean. Matikotik Durangora eta Euskotreneko gainerako lineetan, zerbitzua larunbat gaueko ohikoa izango da.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete Euskotreneko langileekin zerbitzatutako geltokietan eta geralekuetan, Euskotreneko APP ofizialean, konpainiaren www.euskotren.eus web gunean eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean.

Igorpen data: asteazkena, 2019ko otsailaren 20a

Euskadi, auzolana, bien común

